

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA 2019 EKIPAMENDU ZIENTIFIKO/TEKNIKOA EROSTEKO (MINECO-FEDER)

Helburua

Deialdi honen ondorioetarako, ekipamendu zientifiko/teknikotzat hartzen dira haien funtzionamendurako autonomia duten baliabide fisiko guztiak (ekipoak edo tresnak), I+G jarduerak garatzeko beharrezkoak direnak, guztiz funtzionala izateko behar diren osagarriak eta gailu laguntzaileak barne. Ekipo edo tresna bakar bat izan daitezke, edo ekipo eta tresna multzo bat espazio bakar bat hornitzeko.

Ekipamendu zientifiko/teknikotzat hartzen dira ekipo edo tresna baten pareko funtzionaltasunak dituen instalazioa eta I+G+B jarduera zehatzak garatzeko beharrezkoa den ingurune fisikoa eratzen duena.

Hauek dira laguntza izango duten jarduerak:

- a) Ekipamendu zientifiko-teknikoa erosi, hori instalatu eta abiaraztea.
- b) Lehendik dagoen ekipamendu zientifiko-teknikoa hobetu eta eguneratzea haren prestazioak gehitu edo haren zaharkitzea atzeratzeko, barne hartuta osagarri, gailu laguntzaile, behar diren instalazio eta beste baliabide batzuen erosketa.

Diru laguntzen ezaugarriak:

Gauzatzte epea:

Jarduera gauzatzeko epealdia **2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra** artekoa izango da.

Eskaera mota:

UPV/EHUK banaka garatuko ditu finantzatutako jarduerak. Dena den, ebaluatzaileek positiboki baloratuko dute ekipamenduaren erabilera partekatua ikertalde eta proiektu bat baino gehiagoren artean.

Azpiegiturearen kostua:

Ekipamendu zientifiko-teknikoaren proiektu bakoitzaren guztizko kostua (zergak barne) 100.000 euro eta 1.000.000 euro bitartekoa izango da. Ez da onartuko proiektu bat baino gehiagotan zatikatzerik, 1.000.000 eurotik gorako aurrekontua duten ekipoen kasuan. Bestalde, proiektu berean ez dira onartuko elementu bat baino gehiago, elkarrekin zerikusirik ez dutenak, 100.000 eurotik beherako kostu unitarioarekin. Zergak daude sartuta artikuluan aipatutako gehieneko eta gutxieneko zenbatekoetan.

Gastu hautagarriak:

1. Ekipo berrien erosketa, haien osagarriak edo gailu laguntzaileak barne.
2. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren kargura erositako ekipamenduaren garraioa.

3. Ekipo edo tresna baten pareko funtzionaltasunak izango dituen instalazioa eraikitzeke ezinbestekoa den obra zibila eta I+G+B jarduera zehatzak garatzeko beharrezkoa den ingurune fisikoa eratuko duena.
4. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren kargura erositako ekipamendu zientifiko-teknikoa instalatu eta abiarazteko beharrezko den egokitzapena gauzatzeko ezinbestekoa den obra zibila.
5. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren kargura erosi, hobetu edo eguneratutako ekipamendu zientifiko-teknikoa instalatu edo abiarazteko beharrezkoak diren bestelako kostuak.
6. Izaera teknikoko ordenagailuetarako programen lizentzia iraunkorrak, ikerketarako soilik eta deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren kargura erosi, hobetu edo eguneratutako ekipamendu zientifiko-teknikoa egokiro erabiltzea ahalbidetzen dutenak bakarrik.

Ez dira gastu hautagarritzat hartuko:

- 1º. Bulegoko altzariak.
- 2º. Ikasleen edo orokorrean irakaskuntzarako laborategietako ekipamendua.
- 3º. Material suntsikorra.
- 4º. Mantentze edo konponketa gastuak.
- 5º. Ekipamenduaren aseguruak.
- 6º. Erosketa prezioan sartuta ez dauden ekipamenduaren bermeak.
- 7º. Material bibliografikoa, argitalpenekiko izapidetze gastuak, edo datu baseetarako sarbidea.
- 8º. Ekipamendua erosteko prezioan sartuta ez dauden prestakuntzarako gastuak.
- 9º. Ekipoen alokairua.
- 10º. Errentamendu (*renting*) edo finantza errentamendu (*leasing*) bidez gauzaturako jarduketak, nahiz eta erosteko obligazioa kontratuaren amaieran jasota izan.
- 11º. 2. atalean jasota ez dagoen obra zibila.
- 12º. Emandako laguntzaren kudeaketa gastuak.

Diru laguntza kofinantzatzea:

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) hautatutako jarduera edo proiektu bakoitzari ematen dion finantzaketa kostu hautagarriaren % 50 izango da gehienez.

Beraz, IP pertsonak eman beharko du gainerako kopurua. Finantzaketa UPV/EHUn kudeatutako organika batean egon behar da eskuragarri, eta deialdia ebatzi arte geratuko da erreserban. Ikerketaren arloko Errektoreordetzako langileek aztertuko dute kofinantzaketaren bideragarritasuna, eskaera aurkeztu aurretik (nahikoa funts, bateragarritasuna sorburuko deialdiarekin eta abar).

Ikertzaile nagusiaren betebeharrak:

- a. UPV/EHUREkin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- b. Ikertzaile nagusiak berak proiektu/jarduera bat baino gehiago aurkez ditzake deialdi honetan.

Ikertaldeko hideek betebeharrak:

UPV/EHUREkin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

UPV/EHU_n ESKAERAK AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK:

BARRUKO FASEA:

Ikertzaile nagusiak agiri hauek bidali beharko ditu helbide hohetara:
convocatorias.dgi@ehu.eus:

- **I. eranskina:** Ikertaldea osatzen duten langileen zerrenda. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren (IAE aurrerantzean) webgunean eskuragarri dagoen eredia.
- **Azpiegituraren proformako faktura/k**
- **Kofinantzaketaren konpromisoa:** IAEn eskuragarri dagoen eredia.

Dokumentazio hori igortzeko epea **maiatzaren 27an amaituko da, 8:00etan.**

1. FASEA:

Ikertzaile nagusiak [aplikazioan](#) sartu eta proiektuak/jarduketak sortu behar ditu diru laguntza eskatzeko. Proiektu/jarduketa horiek UPV/EHUri lotutakoak izan behar dute.

Online formularioa betetzeko jarraibideak [esteka](#) honetan kontsultatu daitezke.

Formularioa bete ondoren, ikertzaile nagusiak bere eskaera sortu eta igorri behar du. Ondoren, dokumentazio osatua helbide honetara igorri behar du (sortutako formularioa barne): convocatorias.dgi@ehu.eus.

Dokumentazio hori igortzeko epea **ekainaren 3an amaituko da, 8:00etan.**

GARRANTZITSUA: Ez dira balioztatuko epe horretatik kanpo jasotako eskaerak,

2. FASEA:

IAEko langileek sortuko dute eskaera UPV/EHUko zentro gisa eta berari lotuko dizkiote ikertzaile nagusiek aurretik sortu eta igorri dituzten proiektuak/jarduketak.

IAEren aldetik eskaerak aurkezteko epea **2019ko ekainaren 5ean amaituko da, 15:00etan.**

Ikertzaile nagusiek aurkeztu beharreko dokumentazioa:

DOKUMENTUA	FORMATUA	EZAUGARRIAK:
Online eskaera	Aplikaziorako sarbidea	
Memoria teknikoa	Nahitaezko eredia	EZIN DA KONPONDU: Ezin izango da aldatu edo hobetu eskaera aurkeztu ondoren.
Proformako faktura	Formatu librea	
Proiektuko arduradun zientifiko-teknikoaren CVA eta ikertaldeetako arduradunen 5 CVA gehienez	Nahitaezko eredia	Gomendatzen da deialdiaren 15.5.c artikulua kontsultatzea CVAREN ezaugarri zehatzak begiratzeko. EZIN DA KONPONDU: Ezin izango da aldatu edo hobetu eskaera aurkeztu ondoren.
Proiekturako dokumentazio lagungarria	Formatu librea	Dokumentu hau aurkeztuko da, hala nahi izanez gero.

UPV/EHUren datuak eskaera betetzeko:

Hauek dira eskaera betetzeko eskatzen diren erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- Legezko ordezkaria: Jose Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Egoitza soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus
- Telefonoa: 94 601 80 08

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

[Esteka](#)